

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak emandako 2020ko urriaren 15eko Dekretuaren laburpena, zeinak onartzen dituen EAEko udal kiroldegietako 2020ko kuotak ordaintzeko familientzako dirulaguntzen deialdia

BDNS (identifikatzailea): 528637

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/528637>.

Lehena: onuradunak

Onuradun izango dira jardueran izena ematen duten unean Aiara udalerrian erroldatuta daudenak, baldin eta, diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiara udalerrian, eta oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Dena den, adingabeen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena: xedea

Deialdi honen xedea da Aiarako udalerrian erroldatuta dauden pertsonen EAEko edozein udalerritako udal kiroldegiko bazkide izateagatik, banaka nahiz familian, ordaintzen dituzten 2019ko kuoten gastuak ordaintzen laguntzea, baldin eta jarduera horiek Aiarako Udalak eskaintzen ez baditu.

Ez dira barne sartuko instalazio haietan egiten diren kirol jarduerak edo bestelako erabilerak.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen urriaren 15eko 481/2020 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta, ondoren, ALHAOn argitaratu.

Laguntza horien oinarri arautzaileak jasota daude deialdi honetan eta EAEko udalerrietako udal kiroldegietako bazkide kuotak (banakakoak nahiz familiakoak) ordaintzeko familiei laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan, zeina Aiarako Udalak onartu eta ALHAOn argitaratu baitzen 2020ko urtarrilaren 27ko 10. zenbakian.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarakoudala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 6.000,00 euroekin dago hornituta.

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: Udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100, kalterik egin gabe aurreko artikuluan ezarritakoari.

Bosgarrena: eskabideak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun, laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaeraren eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2020ko urriaren 16a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA